Igandeetan, bazkal ondoren, euskal kantuak abestea gustatzen (21) ...................... esan didate, haurrek ikasteko. Nik esan diet, nahi badute, dantzak irakatsiko (22) ...................... . Ikusten duzue harrera ona egin (23) ...................... . Beraz, lasai egon.

Esan Beñati asko akordatzen (24) ...................... berarekin eta muxu bat bidaltzen (25) ...................... . Eta zuei ere bai.

Ea zuek ere idazten (26) .................., eta horko kontuak kontatzen (27) ..................!

Ondo izan.
Agur.

## K DEKLINABIDEA

- Dakigun bezala, euskaraz, deklinatu egiten ditugu izen bereziak, izen arruntak, izenordainak, erakusleak eta adjektiboak.
- Hemen izen berezien eta izen arrunten deklinabide-kasuak berrikusiko ditugu.

| | Izen bereziak | Izen arruntak | | |
|---|---|---|---|---|
| | | Singularra | Plurala | Mugagabea |
| **NOR** | - | -a | -ak | (-) |
| **NORK** | -(e)k | -ak | -ek | -(e)k |
| **NORI** | -(r)i | -ari | -ei | -(r)i |
| **NOREN** | -(r)en | -aren | -en | -(r)en |
| **NOREKIN** | -(r)ekin | -arekin | -ekin | -(r)ekin |
| **NORENTZAT** | -(r)entzat | -arentzat | -entzat | -(r)entzat |
| **NORENGAN** | -(r)engan | -arengan | -engan | -(r)engan |
| **NORENGANA** | -(r)engana | -arengana | -engana | -(r)engana |
| **NORENGANDIK** | -(r)engandik | -a(ren)gandik | -engandik | -(r)engandik |
| **NON (NOIZ)** | -(e)n | -(e)an | -etan | -(e)tan |
| **NONGO** | -(e)ko | -(e)ko | -etako | -(e)tako |
| **NONDIK** | -(e)-tik/-dik | -(e)tik | -etatik | -(e)tatik |
| **NORA** | -(e)ra/a | -(e)ra | -etara | -(e)tara |
| **NORANTZ** | -(e)rantz | -(e)rantz | -etarantz | -(e)tarantz |
| **NORAINO** | -(e)raino | -(e)raino | -etaraino | -(e)taraino |
| **NORAKO (NOIZKO)** | -(e)rako | -(e)rako | -(e)tarako | -(e)tarako |
| **NOLA / ZEREZ** | -(e)z | -az | -ez | -(e)z |

Adibideak:

Gartzen**en** kuadrilla**koak** oso atseginak dira.
*Los de la cuadrilla de Gartzen son muy agradables.*

Boston**go** hegazkina**k** berandu lur hartu zuen.
*El avión de Boston aterrizó tarde.*

Denda txiki**etan** edozein**ek** laguntzen digu fruta pisatzen.
*En las tiendas pequeñas cualquiera nos ayuda a pesar la fruta.*

Zazpi**etatik** hamarr**etara** antzokia irekita egoten da egunero.
*De siete a diez el teatro suele estar abierto todos los días.*

Pozik biziko naiz zu**rekin** eta Martin**ekin.**
*Viviré feliz contigo y con Martín.*

**20** Hurrengo egunean, Garazi umeekin bakarrik gelditu da, lehenengo aldiz. Garazik umeei jai egunetan zer egiten duten galdetu die, Meyerstarren ohiturak ezagutu nahi dituelako, eta umeek gustura kontatu diote.

Deklinatu parentesi artean agertzen diren hitzak.





**Ainara:** Goizean, aitak eta amak jai dutenean, laurok (1) (bizikleta) **bizikletaz** joaten gara (2) (okindegi) .................... ogi bila. Batzuetan, (3) (aita) .................... (4) (etxe) .................... geratzen da, eta (5) (ama) .................... joaten gara Aritz eta biok. Orduan, (6) (ama) .................... (7) (aita) .................... bizikleta hartzen du, handiagoa eta erosoagoa delako. (8) (Aritz) .................... eta bioi asko gustatzen zaigu ogi bila joatea. (9) (Aritz) .................... lehena iristen da beti. (10) (Ama) .................... eta biok berriketan joaten gara, lasai-lasai. (11) (Dendaria) .................... ogi-koskorra ematen digu, (12) (bidea) .................... jateko.

**Aritz:** Iristen garenean, (13) (aita) .................... jartzen gara (14) (sukalde) .................... (15) (mahaia) .................... eta gosaldu egiten dugu. Gero, planak egiten ditugu, eguna nola pasatuko dugun erabakitzeko. (16) (Aita) .................... oso gogoko du (17) (bizikleta) .................... ibiltzea, eta ibilaldiak antolatzen ditugu. (18) (Ama) .................... inguruko mapa ateratzen du (19) (tiradera) ...................., eta (20) (mahai) .................... zabaltzen du. (21) (Ainara) .................... eta biok luma (22) (berdea) .................... marrazten ditugu (23) (aita) .................... esaten dizkigun (24) (toki) .................... . Inguruko bazter (25) (asko) .................... ezagutu ditugu ibilaldi horietan.

**inara:** Batzuetan, (26) (loreak) .................... eta (27) (orbelak) .................... biltzen ditugu, eta (28) (etxe) .................... ekartzen ditugu, lehortzen direnean postalak egiteko (29) (haiek) .................... . Gero, (30) (aitona-amonak) .................... eta (31) (lagunak) .................... bidaltzen dizkiegu.

**Aritz:** Eguraldi txarra egiten duenean, (32) (kiroldegi) .................... joaten gara. (33) (Ni) .................... igeri egitea gogoko dut. (34) (Aita) .................... (35) (ni) .................... lehiatzea gustatzen zaio, baina beti irabazten diot. (36) (Ama) .................... lasterka egitera joaten da. (37) (Ainara) .................... ez du oso gogoko igeri egitea, baina (38) (ur) .................... plisti-plasta jolasean ibiltzea bai. Gero, askotan, jatetxe polit (39) (bat) .................... joaten gara bazkaltzera.

**21** Aritzek eta Ainarak Garazik Euskal Herrian zer egiten duen jakin nahi izan dute, eta honek Euskal Herrian lagunekin zer egiten duten kontatu die.

Deklinatu parentesi artean agertzen diren hitzak.



**Garazi:** Orain, (1) (ni) **nik** kontatuko dizuet zein izaten den (2) (gu) .............. plana, Euskal Herrian. (3) (Igandeak) ...................., goizean goiz jaikitzen gara familia osoa, eta (4) (mendi) .................... joaten gara (5) (lagunak) .................... . Beñat, anaia, eta biok txiki-txikiak ginenean, (6) (aita) .................. eta (7) (ama) .................. joaten ginen. Gero, hamabi (8) (urte) ...................., (9) (lagun) .................... bakarrik joaten hasi nintzen, (10) (herri) .................... mendi (11) (taldekoak) .................... . (12) (Begiraleak) .................... zaintzen gintuzten, eta oso ondo pasatzen genuen. Batzuetan, (13) (kanpin) .................... joaten ginen (14) (asteburuak) .................... .

(15) (Beñat) .................... nik baino bi urte gutxiago ditu eta (16) (ama) .................... joaten zen mendira. Ama argazkizalea da eta kamera hartuta joaten da beti (17) (ibilaldiak) .................... . (18) (Aita) .................... bizikletazalea da, eta, gu koskortu ginenean, bere (19) (lagunak) .................... irteten hasi zen, igande (20) (goizak) .................... .

(21) (eguerdi) .................... itzultzen bagara, (22) (aitona-amonak) .................... bazkaltzen dugu. Oso bazkari dibertigarriak izaten dira (23) (Orio/lehengusu) .................... etortzen direnean. Bazkaldu ondoren, (24) (lehengusu) .................... agur esan eta (25) (kale) .................... irteten naiz, (26) (kuadrilla) .................... (27) (zinema) .................... joateko. (28) (Han) .................... irteten garenean, kafea hartzen dugu (29) (taberna) .................... eta (30) (film) .................... hitz egiten dugu.



# L ADITZ LAGUNTZAILEAK

► Euskaraz **nor**, **nork** eta **nori** kasuek baldintzatzen dute zer aditz laguntzaile erabili behar dugun.

| | | |
|---|---|---|
| **NOR/ZER** | Aterkia (zer) puskatu **da/zen**. | *El paraguas se ha roto/se rompió.* |
| **NOR-NORI** | Niri (nori) aterkia (zer) puskatu **zait/zitzaidan**. | *A mí se me ha roto/se me rompió el paraguas.* |
| **NOR-NORK** | Nik (nork) aterkia (zer) puskatu **dut/nuen**. | *Yo he roto/rompí el paraguas.* |
| **NOR-NORI-NORK** | Nik (nork) hari (nori) aterkia (zer) puskatu **diot/nion**. | *Yo le he roto/le rompí el paraguas.* |

**22** Osatu NOR aditza

**NOR**

| nor | ORAINALDIA | LEHENALDIA |
|---|---|---|
| ni | naiz | .................. |
| hi | .................. | hintzen |
| hura | .................. | .................. |
| gu | .................. | .................. |
| zu | .................. | .................. |
| zuek | .................. | zineten |
| haiek | .................. | .................. |



**23** Eman aditza lehenaldian.

Adib.: Zuek kirolari handiak zarete.

**Zuek kirolari handiak zineten.**

1. Ameriketan primeran bizi dira euskaldun batzuk.

   ..........................................................................................................

2. Igandetan mezatara joaten gara herritarrak.

   ..........................................................................................................

3. Ama oinez etorri da okindegitik.

   ..........................................................................................................

4. Neguan eskiatzen ibiltzen gara Suitzan.

   ..........................................................................................................

**24** Osatu NOR-NORI aditza

**NOR-NORI**

| | ORAINALDIA | | LEHENALDIA | |
|---|---|---|---|---|
| | **nor** | | **nor** | |
| **nori** | (3.p.sing) hura | (3.p.pl) haiek | (3.p.sing) hura | (3.p.pl) haiek |
| niri | zait | .................. | zitzaidan | zitzai**zki**dan |
| hiri | .................. | zai**zki**k/n | zitzaian/nan | zitzai**zki**an/nan |
| hari | .................. | .................. | zitzaion | zitzai**zki**on |
| guri | .................. | .................. | zitzaigun | zitzai**zki**gun |
| zuri | .................. | zai**zki**zu | zitzaizun | zitzai**zki**zun |
| zuei | .................. | .................. | zitzaizuen | zitzai**zki**zuen |
| haiei | .................. | .................. | zitzaien | zitzai**zki**en |

**25** Eman aditza lehenaldian.

Adib.: Mendira joan dira eta botak galdu zaizkie bidean.

**Mendira joan ziren eta botak galdu zitzaizkien bidean.**

1. Eskola-liburuak erori zaizkit bizikletatik.

.......................................................................................................................................

2. Aitorri zurekin hitz egitea gustatzen zaio.

.......................................................................................................................................

3. Kikeren txisteak oso onak iruditzen zaizkizue.

.......................................................................................................................................

4. Gurasoei ondo etortzen zaie ostiral arratsaldea zurekin egoteko.

.......................................................................................................................................

**NOR-NORK**

► Pertsona guztiak izan daitezke subjektu eta objektu, hau da, **nor** eta **nork**.

| | ORAINALDIA | |
|---|---|---|
| | **nor** | |
| **nork** | (3.p.sing) hura | (3.p.pl) haiek |
| nik | dut | di**t**ut |
| hik | duk/n | di**t**uk/n |
| hark | du | di**t**u |
| guk | dugu | di**t**ugu |
| zuk | duzu | di**t**uzu |
| zuek | duzue | di**t**uzue |
| haiek | dute | di**t**uzte |

| | LEHENALDIA | |
|---|---|---|
| | **nor** | |
| **nork** | (3.p.sing) hura | (3.p.pl) haiek |
| nik | nuen | n**it**uen |
| hik | huen | h**it**uen |
| hark | zuen | z**it**uen |
| guk | genuen | gen**it**uen |
| zuk | zenuen | zen**it**uen |
| zuek | zenuten | zen**it**uzten |
| haiek | zuten | z**it**uzten |

... /...